



# "BAITA DEABRUEK ERE SINESTEN DUTE"

(Jac 2, 19)

Esaldi famatu hunek ha-  
maika zer-esan eta hizpide  
sortu ditu. Santiagoren es-  
kutitzean dator. Ikus de-  
zagun pasarte osoa: "Jain-  
ko bakar bat dela sinesten  
omen duzu zuk. Bapo. Bai-  
na hori baita deabruiek ere  
sinesten dute eta sineste  
horrek dardaraz jartzen di-  
tu".

Fedea, eta ez obrak, be-  
har direla dioenari bota-  
tzen dio arrazoi hau Sani-  
tiagok. Esaldiaren nondik  
norakoa aski garbi dago,  
bada. Sineste huts-soilak  
ez gaituela salbatuko. Si-  
nesteak emankor behar  
duela izan, fruituak behar  
dituela berekin: hori da,  
azken batean, Santiagok  
azpimarratu nahi duena.

Gauzak hertsiki eta ze-  
hazki hartzera, ez da  
berdin deabruaren kasua  
eta fededun bekatiaren  
egoera, nahiz eta gauza  
batzuetan antzeko izan.  
Alde handia dago batetik  
bestera.

Izan ere, fededun beka-  
tariak, fedea dioena aitort-  
zen duenean, badu bere  
baitan goi bizitzearen ilin-  
ti bat, deabruak ez duena.  
Jainkozko bizia ez dago  
zeharo itzalia harengan.

Horregatik, eta Trentoko  
Kontzilioak dioenez, obra-  
rik gabeko fedea ere ba-

du zer-ikusi salbazioaz.  
Goi bizitzearen agerri  
eta lekuko bat da beti ere  
(Ikus D 808, 838 etab.).

Bera bakarrik, ordea, ez  
da aski salbatzeko. Fede  
salbagarriak obrak ere be-  
har ditu. Eta hortara dihoa  
Santiagoren esana. Gehia-  
go ere esango digu: horre-  
lako fedea gorputz hilaren  
paretsu dela (Jac 2, 26).

Gure Axular-ek ere hori  
bera irakasten du. **Ger-**  
oren toki batean (Ax 294)  
bi fede molde daudela dio,  
bata bizia eta bestea hila.  
Eta beste batean (Ax 33)  
hunako pasarte hau ira-  
kurtzen digu: "Gauza se-  
gura da eta egiazko fede-  
ak erakusten duena, sal-  
batzeko, zeruko lorian sar-  
tzeko, ezirela desira onak  
berak asko. Baina behar  
direla lainkoaren mana-  
mendu sailduak, desiraz  
bezala obraz ere konplitu.  
Haur da egia, eta haur  
girstino garen guztiok si-  
neste dugu".

—oOo—

Sineste eta bizia bakoi-  
tza bere aldetik ibiltzea  
ez da oraindik gaitza, noski.  
Santiagoren garaian ere  
bazen. Halako hesi bat  
edo leze bat egon ohi da  
bataren eta bestearen artean.  
Eta horren kontra di-  
hoa eskutitz hau.

Jainkoaren Semea gizon

egin zenetik, guregatik hil  
eta hilen artean piztu ze-  
netik, dena berri eta lehen  
ez bezalako bihurtu da.  
Horrelakorik gertatu ez ba-  
litz bezala bizitea ez da  
posible, edo ez luke posi-  
ble izan behar, kristaua  
benetan kristau izatekotan.

Begi berriak eta gauzak  
neurtzeko neurri berriak  
ekarri dizkigu fedea.

Hori da Santiagok jakin  
arazi nahi diguna. Eta hor-  
tarako giza bizitzearen sail  
asko aipatzen ditu, fedea-  
ren eraginakin hoiak ikus-  
kera nola aldatu den era-  
kutsi nahiz. Izan ere, fede-  
ak ekarritako argi berrie-  
kin giza balioen neurriak  
atzekoz aurrera eta azpikoz  
gora jarri baitira.

Horra sail hoietako bat:  
Ezbeharrak eta saminak.

"Zorionekoak zuek, ez-  
behar eta saminetan zau-  
detenok" (Jac 1, 2). Hasie-  
ra-hasieratik baieztape  
bitxi hau prantatzen digu  
Santiagok. Eta segituan  
ematen du bere esan harri-  
garri hunen arrazoiak: ho-  
rrela sendotzen eta fintzen  
baita fedea, urrea arra-  
goan egin ohi den bezala.

Guk nekea eta ezbeha-  
rra segitun uxatu nahi izat-  
en ditugu geuregandik.  
Dena leun eta eroso nahi  
genuke. Ezbeharrak eta oi-  
nazea oztipo huts iruditzen  
zaizkigu. Baina oztipoa,  
oztopo izanik ere, zerbaite-

tarako da. Oztopoari esker, oztopoa garaituz heltzen da gizona bere gizontasunaren maila betea irixtera.

Fedean ere halatsu gertatzen dira gauzak. Probarik ikusi ez duenaren fedea ez dakizu zenbat balio duen. Probekin egiztatzten da hori. Proba hoienez bidez fintzen eta sendotzen da fedea. Horregatik zorionekotzat jotzen ditu Santiagok probak jasaitzen dituzten fededunak.

Pobreak eta aberatsak: horra beste sail bat fedearen etorreraz azpikoz gora jarri zaiguna. Bai. Pobre eta aberatsen arteko gorabeherak neurtzeko metro berria ekarri digu fedea. "Gizarte maila apaleko fededuna bego harro gertatu zaion handitasunaz, eta aberatsa, aldiz, gertatu zaion apaltzeaz" (Jac 1, 9).

Zer esan nahi ote digu Santiagok hizkera modu hunekin? Bistan da: balio berriak etorri direla mundura, ondasun berriak. Beste ondasun batzuk dira orai, balio trinkoa eta iraunkorra dutenak; eta hoienez aurrean lurreko ondasunen distira asko goibeldu da.

Tamalez, ordea, gauza guzti hauek teoriarik geldi daitezke. Eta hori izan ohi da gure betiko bekaturia.

Beste gauza bat ere goratzen du Santiagok, fededun jatorrak bere ahalen neurrian beti egin behar duena: premia gorrian denari laguntzea. Ez da aski hitz onak esatea (Jac 2, 16).

Eta beste bat oraino: mihiari neurriak hartzea (Jac 3, 16). Hori egiten ez de-



lako, zenbat kalte, zenbat hondamen ez dira gizonen artean gertatzen!

Despita, setakeria, elkarren arteko sesioak: guzti horri uko egin behar dio kristauak.

Hitz batean esateko, bakearen errole eta zabalzaile behar du izan kristauak, ez liskar sortzaile (Jac 3, 18).

—oOo—

Kristauontzat ispilu bat utzi digu Santiagok geure buruak bertan ikus ditzagun.

Fedea ikuskera berria dakar berekin, gauzak

neurtzeko neurri berria. Baina guzti horrek ez du teoria hutsa izan behar; eta tamalez hala gertatzen da askotan.

Kristo hilen artean berpiztu zenetik, neurriak aldatu dira, lehengo neurriek ez dute gehiago balio. Baina ikuskera berri hunez gure bizitza aldatzeko aina indar izan behar du.

Hortan saiatzen ez den kristaua ez da benetan eta osoki kristau.

Haren fedea gorputz hilaren itxura du.

Fr. L. Villasante